



Elkarrekin aritzen ikastea – elkarrekin aritzea ikasteko Ikaskuntza kooperatiboaren inplementazioa



Lanbide | **Formación**
Heziketa | **Profesional**
NAFARROA | NAVARRA

Ikastetxea

Hezitzaile Eskola II

Koordinatzailea

Ana Berta Gainza Artazcoz

Irakasleak

M^o Milagros Abaigar Luquin

Raquel Delgado Senosiain

Julia De Pablo Ezcurra

M^o Dolores Iracheta Andueza

M^o José López Beorlegui

Helburua

- Ikasten ikasteko gaitasuna garatzea.
- Ikasgelako lanean ikaskuntza kooperatiboaren metodologia inplementatzea.
- Hezkuntza esperientziak garatzea bizikidetza, berdintasun eta aniztasunaren inguruan.
- Erdietsitako lorpenak eta hobekuntzak behatzea eta erregistratzea, ikasgelako lan giroari dagokionez: bizikidetza, lan giroa, zereginen garapena.
- Gaitasun digitala garatzea, proiektuak egitetik abiatuz.
- Esperientzia ikastetxeko gainerako irakasleen artean hedatzea.

Ezaugarriak

- Ikasleen eta taldeen arteko harreman eta lan giroa hobetzen duten egiturak inplementatzea.
- Ikasleen parte-hartze ekitatiboa eta aldi bereko elkarreragina, taldekide guztiek ahalik eta ikaskuntza gehienak eskuratu ditzaten, bakoitzaren ahalbideak kontuan hartuta, eta taldean lan egiteko estrategiak lantzea.
- Taldeen zereginetan erantzukizunak antolatzea eta txandaka aritzea.
- Taldeen autoerregulazioa eta autoebaluazioa, banaka zein talde mailan.

PROIEKTUAREN ERABILGARRITASUNA

Ikasleentzat:

- Bestea ulertzen laguntzea eta taldeko lanean gertatzen diren interdependentzia moduei antzematea.
- Lantaldeen eraketa egonkorra eta askotarikoa, prestakuntza moduluak garatzeko orduan.
- Esperientziak eta baliabideak eskuratzea beren etorkizuneko lan profesionalerako, dagokien lanbide esparruan (Haur Hezkuntza, Animazio Sozial, Kultural eta Turistikoa, eta Gizarte Integrazioa).

Irakasleentzat:

- Estrategia eta baliabide metodologiko berriak eskuratzea eta sartzea.
- Urratsez urrats metodologia aktiboak inplementatzea: POI (proiektuetan oinarrituriko ikaskuntza), ikaskuntza kooperatiboa.
- Ikasleen behaketa eta ebaluazioa hobetzea.



Lortutako produktuak



- Institutuko multimedia gela hobetzea, taldeen zereginak eta proiektuak gauzatzeko.
- Ikastetxeko liburutegian Abies sistema instalatzea eta irakasleei hura erabiltzeko prestakuntza ematea.
- Irakasleei prestakuntza ematea community manager-i eta proiektuetan oinarritutako ikaskuntzari buruz.
- Metodologia honen aplikazioa hedatzea eta dinamizatzea ikastetxeko irakasleen artean, hala erakunde mailan planteatutako estrategia betez.
- Ikastetxeko irakasleak pixkana-pixkanaka sartzeko ikaskuntza kooperatiboaren metodologiaren ezarpenean.
- Hezkuntza ez-formaleko jardunaldia eta antzerkia (Iruñeko San Frantzisko eta San Juan de la Cadena eskoletan), Haur Hezkuntzako 2. ikasmilako ikasleen eskutik.
- Etxegabetzeen inguruan sentibilizatzeko lantegia, Gizarte Integrazioko 1. ikasmilako taldeak ikastetxeko beste talde batzuei emanik lantegia.
- ASKT jardunaldien antolaketa ikastetxean, ASKTko 2. ikasmilako taldearen eskutik.
- Metodologia aktiboak erabiltzen dituzten Lanbide Heziketako ikastetxeen sarean sartzeko.

